ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2016ko ekainaren 22a, asteazkena • 71 zk.

## V - BESTELAKOAK

# SANTA MARIA KATEDRALA FUNDAZIOA

**Vitoria-Gasteizko Santa Maria Katedraleko girolako kaperen gaineko erlaitzaren proiektua gauzatzeko irekitako lizitazio bidezko prozedura**

1. Erakunde adjudikatzailea: Santa Maria Katedrala Fundazioa.

2. Kontratuaren helburua:

A) Helburuaren deskribapena: "Vitoria-Gasteizko Santa Maria Katedraleko girolako kaperen gaineko erlaitzaren proiektua" gauzatzea

B) Banaketa loteka: ez.

C) Iraupena: bost hilabete

3. Izapidea, prozedura eta adjudikatzeko era.

A) Izapidea: ohikoa

B) Prozedura: irekia

C) Adjudikatzeko modua: ekonomikoki hobea den eskaintza. Ikusi adjudikatzeko irizpideak ezaugarrien taulako "U" puntuan.

4. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua.

Guztizko zenbatekoa: 289.230,44 euro gehi BEZa, 60.738,39 euro; guztira, zenbatekoa 349.968,83 euro da (BEZ barne).

5. Bermeak:

Behin-behinekoa: ez da eskatzen

Behin betikoa: adjudikazioaren zenbatekoaren ehuneko bosta (BEZ kanpo).

6. Kontratistaren berariazko baldintzak

A) Sailkapena: ez da eskatzen

B) Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa: ikusi ezaugarrien taulako "O" puntua.

7. Dokumentazioa eta informazioa eskuratzea:

A) Fundazioaren Administrazio Saila

Tokia: Vitoria-Gasteizko Aiztogile kalea, 95

Telefonoa eta faxa: 945 122160

B) Kontratugilearen profilean: www.catedralvitoria.com

C) Copigraf, Babesgabetuen Andre Mariaren Plaza, 2. Vitoria-Gasteiz. Telefonoa: 945 284447

8. Eskaintzen aurkezpenak:

A) Epea: ALHAOn lizitazio-iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasi eta 26 egun naturaleko epea izango da.


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Eskaintza postaz aurkezten bada, Administrazio Publikoen Kontratuen Lege Orokorraren Arautegiko 80. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da.

B) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: ikusi ezaugarrien taula eta orri administratiboak eta teknikoak.

C) Aurkezteko tokia: Vitoria-Gasteizko Aiztogile kaleko 95. zenbakian dauden Fundazioaren bulegoetan, 14: 00ak arte. Azken eguna larunbata edo jaieguna balitz, hurrengo egun baliodunera atzeratuko litzateke.

9. Eskaintzak irekitzea:

“C” gutun-azala proposamenak aurkezteko egunetik hasi eta laugarren egun baliodunean irekiko da, 13: 00etan, Santa Maria Katedrala Fundazioaren bulegoan, jendaurrean eta “B” gutun-azala ireki ostean.

“A” gutun-azala proposamenak aurkezteko egunetik hasi eta bederatzigarren egun baliodunean irekiko da, 13: 00etan, Santa Maria Katedrala Fundazioaren bulegoan, jendaurrean.

10. Beste informazio batzuk:

Ikusi ezaugarrien taulako behaketen atala.

2016ko ekainaren 30ean, 12.30etan obra-bisita egingo da interesatutako lizitatzaile guztiekin

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 1a

*Presidentea*
*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2016.06.22 05:36:22 Z